

Kulturbilgunea

2011ko udagoienez Larrabetzun kultura jorratzen dugun herriko hainbat elkarte batzartzen hasi ginen. Hasierako helburua apala zen: batak besteari kultura zelan jorratzen duen kontatzea, zelango kultura eskaintzen dugun hausnartzea, nori eskaintzen diogun, non eskaintzen dugun, zer beharizan dugun plazaratzea edota urteko plangintzak trukaturatuta agendak bateratzea. Gogoeta eta informazio truke horretatik jaiotzen gaur egun bi hilabeterik baten etxean jasotzen dugun Kultura Agenda.

Hilero biltzearen podesuz, elkarregaz ekitaldiak antolatzen ere hasi ginen, berbarako Euskararen egunean, Korrikan edota Liburuaren egunean. Hutsuneak ere detektatu ditugu Larrabetzuko kultur eskaintzan, besteak beste 12-18 urte bitartekoentzat proposamen sano gutxi eskaintzen ditugula edo kulturaren transmisioa ez dugula behar bezala lantzen (ikus 24. orrialdea).

Liburuxka honegaz, larrabetzuar guztiok gure herrian kultura jaso, jorratu, eredu eta transmititzeko zer aukera dugun ikusiarazo gura dugu: Larrabetzun kultura nork zer noiz norentzat proposatzen dugun. Guztiok izan dezagun Larrabetzuko kulturaren mapa globala, ahalik eta argigarriena, konturatu gaiten gure geuk eta gure atzetik datozenek zein aukera dugun kultura jasotzeko, jorratzeko eta sortzeko.

Eta bide batez ditugun gabezi edo hutsuneak azalerazoz gura ditugu, hutsuneok guztion artean betetzen ahalegindu gaiten.

Kulturbilgunea

Larrabetzun, 2014ko maiatzean

oharra: adostutako gidoi bati kasu eginda, elkarte bakoitzak bere testua idatzi du.



Arrekikili

euskera elkarte



Arrekikili euskara elkarte duela 13 urte jaio zen. Sortu zenean lehiaketa zabaldu zen izena ipinteko eta Arrekikili aukeratu genuen. Urte batzuk pasa dira, eta harrezkero hainbat proiektu eta egitasmo burutu ditugu: bertoko produktuen azokea, Literaturaz berbetan egitasmoa, berbalagun taldeak, euskara tailerrak...

Elkarteak herrian euskararen erabilera bultzatzea izan du beti helburu baita euskalgintzako beste alkarte eta eragile batzuen eskutik hurbil dagozan esperientziak ezagutzea ere.

Gauza nabaria da...

Larrabetzuko egoera soziolinguistikoa dexente aldatu dela azken urteotan. Lagun asko, euskaldunak gehienak, gurera hurbildu dira bi-



zitzera; biztanle kopurua handitu egin da eta horrek eragina euki du herritarren beharrezanetan eta ohituretan. Gure herria euskaldun eta euskaltzale joten dugu, eta bagara. Baina, egia esateko, euskararen kaleko erabilera bajatu da, eta horrerri ere aurre egin behar diogula uste dugu.

Badakizu...

Larrabetzun euskararen kaleko erabileraren inguruan kale neurketa egin zuela udalak? Ikerketa haetatik atera ziran ondorioak oso kon-tuan hartzekoak dira.

Esate baterako, herrian euskara gehien erabilten dutenak gazteak dira. Haren ostetik umeak dagoz; eta horren ostean, adinekoak. Eus-kara gutxien erabilten dugunak helduak gara. Inkestaren emaitzek konfirmatu zuten euskararen erabilera batez ere 25 urtetik 45 urtera bitarteko lagunen artean bajatu dela.

Hala ere...

Baikorrak izateko elementu asko doguz Larrabetzun. Izan ere, euskararen ezagutza eta motibazioa badago, herrian gauzak egiteko baliabideak badaukaguz, euskaldun zaharren kopurua oso altua da, euskara ikasleak eta berbalagunak badagoz... Baina hala eta guztiz ere, euskararen erabilerari etengabeko bultzadaxoak eman behar dizkiogu.

Horretako zeu ere inportantea zara!

Hizkuntza bizirauteko hitzunak behar direlako. Zeure etxean, behar-rean, koadrilan, familian... euskara erabili egizu, zabaldu, jagon, konpartitu, transmititu...

Gura duzun lekuan, moduan eta jendeagaz. Gure hizkuntza mundua ikusteko era bat da, kultur ondarea, bizimodu bat. Larrabetzu euskal-dun izan dadin zeure partehartzea ezinbestekoa da, eta zeure laguntza oso estimatua.

Gugaz kontaktuan jarri gura duzu?

Ba idatziguzu e-lbide honetara: **arrekikili@gmail.com**, taldeko par-taideekin harremanetan jarri edo Anguleri Kultur Etxean galdetu, zeure zain gagoz eta!



Garmitxa

elkartea



Garmitxa irabazi-asmorik gabeko elkartea da. Inolako elikagairik jan ezin duten eta oinarritzko formula baten bidez bakarrik elikatu ahal diren ume biren familiek sortu zuten 2011ko ekainean. Gaur egun, hiru dira gaixotasuna duten eta Garmitxako partaide diren umeak: Garikoitz, Mikel eta Aimar. Garikoitz Larrabetzuko da, Mikel Ortuellakoa eta Aimar Barakaldokoa.

Garmitxaren helburu nagusia ikerketarako bide bat zabaldu eta hori diruz laguntzea da. Izan ere, ikerketa faltagatik izenik ere ez duen gaixotasuna da ume hauek daukatena. Euren globulu zuriek akats bat dute eta elikagaiak etsaitzat hartzen dituzte. Ume hauen elikagai bakarra oinarritzko formula bat da, amaren esnean oinarritutako eta aminoazidoen nahaste sintetiko baten bidez egina.



Hala ere, ikerketaren bide horretan lehenengo pausuak ematen hasiak dira. 2013ko ekainean mediku talde batek (F.Javier Chaves doktorea buru duena, Genotipo eta Diagnostiko Genetikoko ikertzailea, Valentzia-INCLIVAKo Ikerketa Kliniko Fundaziokoa), azterketa bat abiatu zuen, balizko mutazio edo genetika-alterazioak identifikatzeko asmoarekin. Jatorria genetikoa izango balitz edo arrisku handia suposatuko lukeen gen bat balego, identifikatu ahal izanez gero, tratamenduak diseinatzen hasteko oinarri moduan balioko luke. Lana luzea izango da eta denbora beharko da.

Helburu nagusia lehenetsiz beraz, Garmitxak baditu beste helburu orokor batzuk, garrantzi handikoak hauek ere:

- Gaixoak bildu, helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egiteko asmoz.
- Gaixoak eta euren senitartekoak bideratu, gaixotasunari, tratamenduari eta ikerketari buruz.
- Gaixotasuna jendarteratu eta herritarren zein administrazioaren sentsibilizazioa lortu.
- Antzeko helburuak dituzten elkarteekin elkarlanean aritu.
- Gaixotasun hau duten umeen bizitza-kalitatea hobetu.

Sortu zenetik, Garmitxak hainbat ekimen bultzatu ditu: plastikozko tapoiak bildu, materiala saldu (sudaderak, kamisetak, pegatinak, pultsera solidarioak, etab.), bigarren eskuko produktuen azoketan parte hartu, bazkideak lortu, etab.

Elkarteak bere egoitza Larrabetzun izanik, ekimen hauek askotan Larrabetzun bertan burutu dira, besteetan Bizkaian, baita Euskal Herri ik kanpora ere. Katalunian, esate baterako, Les (Val d'Aran), edo Cubelles (Bartzelona) herrietan ibilia da Garmitxa, bertako udal edo elkarteek gonbidatuta.

Larrabetzuri dagokionean, Garmitxak ia gehienetan beste elkarte batekin elkarlanean edo gonbidatu gisa antolatu ditu bere ekintzak; Uritarra, Racing elkarte, Gurrupide, Udala, Xaker, Gaztelumendi edo Txinpasmendi izan ditu kide bide horretan. Haiei esker Garmitxak presentzia handiagoa izan du Larrabetzuko plazan. Azken urteotan, urrian, bertoko produktuen azoka egunean, Garmitxak bere salmenta eta informazio-postua jarri du; abenduan, auto klasikoen erakusketa



egunean, bere postua ipintzeaz gain, hamaietakoa eskaini du; ekainean, Goikoexalden, San Antonio eguneko askaria eskaini du.

Elkarteak berak bultzatutako ekimenen artean, udaberriko martxa nabarmenduko dugu. Lehenengoa izan zen luzeena, 2012ko martxoan hasi eta ekainera bitartean, Bizkaian barrena herriz herri elkartearen berri emanez ibili ondoren, Larrabetzun izan zuen helmuga, alebinen futbol 7 txapelketarekin bat eginez. Ondorengo urteetakoak beste modu bateko martxak dira: herri osoari deia egin eta igande goiz batean Larrabetzu inguruan zehar mendi ibilaldi bat burutu, jai giroan plazan amaituz. Datozen urteetan ere ekintza hauek finkotuz joango direlakoan gaude.

Ekimenak-ekimen, etorkizunari begira eta Larrabetzun antolatu nahi dituen ekintzei dagokienean, Garmitxaren borondatea, bere salmenta eta informazio-postuak kokatzeaz gain, elkartasuna xede izanda, familia guztiei zuzendutako ekintzak bultzatzea da eta, ahal den neurrian, Garmitxako umeek ere burutu ahal dituzten ekimenak antolatzea.





Informazio gehiago **www.garmitxa.org** atarian.

Harremanetarako **garmitxa@gmail.com** helbidean.

GARMITXA, **IgEz** neurtu gabeko alergia gastrointestinal aniztunak dituzten gaixoen elkarte.

GARMITXA, asociación de afectados por alergias gastrointestinales múltiples, no mediadas por **IgE**.





Izar Argia

abesbatza



Izar Argia abesbatza nahiz eta 1991aren hasieran jaio, ofizialki, 1995eko martxoaren bian eratu zen elkarte hau, "LARRABETZU" MUSIKA ESKOLAREN babespean.

Gure helburuak, gure elkarte jaio zenetik, ume eta gazteen artean, musikarekiko zaletasuna landu, eta horren bidez, eta horregaz batera, oso garrantzitsuak diren beste balore batzuk (elkarrenganako errespetua, elkarlana, elkarbizitzarako gaitasunak, e.a.) lantzea dira.

Ume eta gazteei ez ezik, beste edonorengan musikagaz gozatzeko aukera ematea, eta kultur eta herri ezberdinen arteko loturak sortzeko, musikak daukan ahalmena erabiltzea.



Azpimarratu gura dugu, gure erreperitorioaren zatirik handiena euskaraz dela. Garrantzi handia ematen diogu gure hizkuntza eta kulturaren sustapenari. Lan berezia egiten dugu gure betiko abestiak galdu ez daitezen, batez ere gabon sasoikoak.

Larrabetzuk eta Euskal Herriak betidanik izan duten tradizio musikala kontutan harturik, aipagarria da gure ustez, helburu hauen garrantzia, bai ikuspuntu kulturaletik, bai herriko biztanleek aisialdi mota hau gozatu ahal duten neurrian.

Ez dugu arlo soziala begi bistatik galdu behar. Taldeka egiten den lanak, herria egiterakoan dakarren onuragatik.

Momentu honetan 35 ume eta gazte inguru dira abesbatzaren partaideak, Txorierri guztikoak.

Entsaioak, Musika Eskolan egiten dira astero, eta urtean zehar hainbat kontzertutan hartzen dugu parte, Larrabetzun, Lezaman, Derion, Sondikan..., bakarrean edo "LARRABETZU" MUSIKA ESKOLAko ikasleekaz batera, zein beste abesbatza batzuekaz.

Kontzertuez gain, Operari buruzko programa didaktiko baten hartzen dugu parte, eta urtero hitzaldi bat eta Euskalduna Jauregira opera bat edo gehiago ikustera joaten gara ABAO-OLBeren eskutik.

Gure kontzertu eta hitzaldiak herri guztiari zabalik dagoz, noski, eta Larrabetzun antolatzen diguzanak, Angulerin edo Andra Mari Eleizan izaten dira.

Partaideak 10-18 urte artekoak izan arren, eurek eskeinitako emanaldiak adin guztietarako publikoarentzat dira.

Urte guzti hauetan ehundaka ume eta gazte pasatu dira gure abesbatzatik, eta laster, hasierako partaideen seme alabak gugaz izatea espero dugu.

Gugaz harremanetan jartzeko:

Tfn.: 94.455.70.66

e-mail: **larrabetzum.e@gmail.com**

Helbidea: Errebale kalea, 7, behekoa





Kukubel

aisialdi elkarte



Kukubel aisialdi elkarte Larrabetzun, aisialdiak zuen gabezia ikusita, 2013ko Otsailaren 22an, sortutako elkarte da. Kukubel 7-18 adin tarteko haur eta gazteen aisialdi elkarte dugu. Gazteen lan bolondresen oinarritua eta inongo irabazi asmorik gabekoa dena.

Kukubel elkarte, herritik, herritarrena eta herriarentzat sortutako ekimena da. Horregatik, herriko gainontzeko elkarte zein mugimendurekin elkarlana burutuz hezkuntza formal eta ez-formalaren arteko zubia mozte bidean, eskola zein herritarrekin proiektu edo dinamika bateratuak bultzatuko ditu, beti ere, herri eraikuntzan lan aktiboa burutuz.



Euskal Herria zazpi probintziaz osatutako lurralde gisa ulertzen dugu. Era honetan herri euskaldun, kritiko, aske eta aktibo baten aldeko lana burutu nahi dugu. Sormena, elkarkidetzeta, kritikotasuna eta konpromisoa bilatzen duten jarrerekin eraldaketa soziala bilatzeko egingo dugu lan.

Larrabetzuko haur eta gazteak herrian hazi eta heztea bultzatu nahi dugu proiektu honekin. Larrabetzuko haurren heziketa integralaren parte izan nahi du Kukubelek, hezkuntza gune formaletik harago ulertzen baitugu.

Horretarako, ondoren zerrendatuta datozen helburuei erantzutea dugu xede, besteak beste: kirola, kultura, euskara, kulturartekotasuna, baserria, hezkidetzeta eta lurra sustatzen dituzten ekintzak.



Email: larrabetzukukubel@gmail.com

Blog: kukubel.blogspot.com

Ekintzak: Asteburuetan ekintza desberdinak burutzen ditugu.



Gurpide

baserritarren eta kontsumitzaileen elkartea



Gurpide Elkartea Larrabetzuko baserritarren eta kontsumitzaileen Elkartea, 2009an eratu zen ofizialki baina elkartearen jarduna 2007ko udan hasi zen, Larrabetzuko zenbait baserritar eta kontsumitzaile herriko lehen sektorea nola bultzatu eztabaidatzen hasi zirenean. Lehenengo eztabaida hauetan azaleratutako behar nagusia herrian bertan topa daitezkeen produktuak eta ekoizleak identifikatzearena izan zen.

2007-2008ko neguan 72 baserri bisitatu ziren, hurrengo ondorioekin: baserritar gehienak adinekoak dira, erreleborik apenas badagoen; gehienetan, mantentzen den nekazal aktibitatea autokontsumoari zuzentzen da (apenas profesionalik badagoen), eta ez daukate interesik beraien ekoizpena merkaturatzeak suposatuko lukeen lana hartzeko.



Hala ere, 14 baserritarrek interesa erakutsi zuten beraien kontaktu-datuak herrian zabalduko zen “Larrabetzuko baserritarren gida” batean agertzeko.

2010etik Gurrupideko baserritarrek eskolako jantokiarekin daukaten elkarlanean sakondu egin dute. Urtez-urte esperientzia handitzen doa, produktu gehiago eta kalitate hobegokoak eraman dira jantokira ikasturtetik ikasturtera. Izan ere, eskolako jantokia proiektu garrantzitsua da, zentzu guztietan. Herriko nekazaritzari dagokionez, jantokia tresna paregabea izan daiteke nekazaritza agroekologikoa sustatzeko: elikagaien beharizan handia da, ia urte osoan zehar ematen dena; gainera, biharko larrabetzuarren elikaduran zeresan handia dauka, bertan hartzen baitute eguneroko janariaren zati handi bat, beraien bizitzako lehenengo urteetan zehar.

Hasieratik elkarteak jorratu nahi izan duen beste esparru bat izan da kontsumo arduratsuekiko sentsibilizazioa. 2013an, herritarrei zuzendutako “Neu be otzarakide” kanpaina abiarazi genuen, asteroko produktu-otzara jasotzeko interesa izan zezaketen kontsumitzaileen-gana iristeko.

Larrabetzu Elkarlanean, Gurrupidek 2013-2016 eperako prestatu duen proiektua, horretarako planteamendu integrala da, maila ezberdinetan eragin nahi duena: baserritarrak, eskola-jantokia, kontsumitzaileak, udaletxea...

Gurrupideren helburuak

Helburu orokorra:

“Larrabetzuko herri eragile, kontsumitzaile, erakunde publiko eta pribatuaren arteko elkarlanarekin, lehen sektorea ekonomikoki, ekologikoki eta sozialki sostengarria izatea lortu”.

Helburu zehatzak:

1. Baserritar berriak martxan jarri.
2. Larrabetzuko eskola jantokia bertan ekoiztutako elikagai agroekologikoekin hornitu, ahalik eta neurri handienera.
3. Bertoko produktuen salmenta zuzeneko kanalak indartu.



Elkartearen jarduera

- Larrabetzuko baserritarren azoka, urriko hirugarren asteburuan.
- Merkatu txikia, astebururo, plazan

Horrez gain, Gurpidek herrian antolatzen diren beste azokatan parte hartzen du: Txakolin Egunean, postu bat ipiniz; eta San Isidro azokan, aurrentzako ekintzak antolatuz (ereintzak eta landaketak).

Gurpideren batzarrak hilean behin egiten dira, hileko 2. astelehenean.

Gugaz kontatuan kartzeko:

gurpide.elkartea@gmail.com

626 95 57 13





Gurpide



Txinpasmendi

guraso elkarte



Txinpasmendi guraso elkarte egungo eskola zabaldu zenean sortu zen, hau da, 1978 urtean. Urte horretatik gaur arte guraso askok hartu dute parte. 12 bat lagun egoten dira zuzendaritza taldean beti eta eskolako guraso gehienak bazkideak dira. Normalean hilabetero batzar bat egiten dugu eta urtean behin gurasoen batzar nagusia burutzen dugu.

Elkartearen helburu nagusia eskolako egunerotasunean parte hartzea edo laguntzea da eta horretarako hainbat behar egiten ditu: eskolako jantokiko kudeaketa, eskolaz kanpoko ekintzak, eskolako jaia, tailerak, hitzaldiak, antzerki emanaldiak, kontzertuak eta umeek ikasturtean zehar lantzen dituzten jardueren emanaldiak edo erakusketak.



Hainbat ikastaro ere antolatzen ditugu: margolaritza, antzerkia, gimnasia erritmikoa, euskal dantza, euskal instrumentuak. Ikastarook urte osoan zehar eta batez ere eskolan egiten ditugu eta batzuetan Anguleri ere erabiltzen dugu. Normalean 3-12 urte bitarteko umeei edo gurasoei zuzenduta daude.

Elkarteagaz harremanetan jartzeko: www.larrabetzukoeskola.org eta txinpasmendi.guraso@gmail.com





Gaztelumendi

abesbatza



Gaztelumendi Abesbatza 1992ko irailaren 12an eratu zen. Irabazi asmorik bako elkarte da eta abesten gustatzen zaion edota musika sentitzen duen edonori zabalik dago. Gaur egun 32 lagunek osatzen dugu Gaztelumendi Abesbatza, 26 larrabetzuarrek eta txorierriko beste 6 kidek. Erabakiak batzar orokorrean hartzen ditugu eta tarteko lanak egiteko zuzendaritza taldea dugu.

Gure elkartearen helburuak honakoak dira:

- Musika koralaren gozamina.
- Musika koralaren gozamina helburu bakartzat, edozein ideologiatik aparte, Larrabetzuko hiritarrak batzen dituen ekintzetan parte hartzea.



- Musika korala Larrabetzun zabaltzen lagundu, abesbatza askoren ekintzak herrira ekarriz.
- Larrabetzuko udalarekin eta beste erakundeekin lankidetzan, gure ekarpen musikalarekin ekintza kulturaletan parte hartzea.
- Larrabetzun euskal hizkuntza eta euskal kultura hedatzea: gure abesti sortaren %70a euskaraz da.

Urtero BAEk antolatutako Udaberriko Kontzertuak egitarauan hartzen dugu parte. Normalean hiru abesbatzek osatzen dugu egitaraua eta hiruron herrietan abesten dugu. Txorierrin antolatzen diren Gabonetako Kontzertuak zikloan ere kantatzen dugu, Larrabetzun nahiz Txorierriko dagokion herrian. Euskal Herriko zein atzerriko abesbatzekin joan etorriko topaketak ere izaten ditugunez, gutxienez urtean behin atzerrira joaten gara eta zelan ez, Larrabetzun antolatzen diren kultura ekintzetan parte hartzeko prest egon gara eta etorkizunean ere egongo gara.

Entseguak

Eskolako liburutegian astero bitan elkartzen gara, astelehen eta astearteetan, 20:30etatik 22:00etara eta zahar zein gazte, gure ateak zabalik dagoz beti.



Larrabetzuko udala

kultura batzordea



Larrabetzuko udalak Kultura batzordearen agindu eta kultur dinamizatzaillearen eta herritarren proposamenez, Larrabetzun, kulturaren esparru anitzen ardura hartzen du eta gehienbat herri-elkarteen lana osatzea du helburu.

Udalaren eskaintzak beti adin guztietako herritarrak ditu hartzaile eta nahiz eta tradizioz helduak eta umeak izan gehienbat udalaren eskaintzari abegi onena egiten diotenak, azken aldian gazteentzako saioak antolatzen ahalegindu gara.



Honakoak dira, adinaren arabera, antolatzen ditugunak:

12 urte artekoentzat

Ludoteka gela

Gabonetako, Aste Santukoeta eta udako ludoteka programak.

Irakurketa dinamizazioa: Irakurketa Kluba eta Azalerako Ipuinak.

Ekitaldi esanguratsuak herri-elkarteekin batera: Ihauteriak, Euskaren astea, Liburuaren astea, Martxoaren 8a...

Liburutegia

13tik 18ra bitartekoentzat

Aisialdi ikastaroak: zineforuma.

Liburutegia

18tik gorakoentzat

Aisialdi ikastaroak: margogintza

Liburutegia


Irakurketa dinamizazioa: Literaturaz berbetan (lehenago Arrekilikil antolatzen zuena)

Ekitaldi esanguratsuak herri-elkarteekin batera: Ihauteriak, Euskaren astea, Liburuaren astea, Martxoaren 8a...

Hauetz gain, herri-elkartekaz batera, San Isidro eta San Antonioak antolatzen ditugu eta Hori Bairi San Migelak antolatzen laguntzen diogu.

liburutegi.larrabetzu@bizkaia.org

www.larrabetzu-udala.org





Hori Bai

gazte elkartea



Hori Bai gazte elkartea 1963an gazteentzat zegoen eskaintza eskasa eta mugatua zen eta horren aurrean herriko gazte batzuek elkartea sortzea erabaki zuten. Orduko abadearekin eta Bilboko apezpikuarekin zenbait batzar izan ondoren eleiza ondoko egoitza gazteen esku geratu zen. Horrela, 1965ean estatutuak bete eta ofizialki sortu zen Hori Bai gazte elkartea.

Joan diren 50 urteotan Hori Baitik hainbat belaunaldi pasatu dira. Hainbat oztopo eta gorabehera izan diren arren, gaur egun Hori Baik eta larrabetzuko gazteriak bizirik eta lanean dirau eta horrela jarraitzeko asmoa du beste horrenbeste urtetan.



Hori Baiak modu asanblearioan funtzionatzen du. Asanblada 15-25 urte bitarteko 25 gazte inguruk osatzen dugu. Defendatu beharreko baloreak, ekintzak eta gainontzeko eginbehar denak astero egiten den asanbladan erabakitzen dira.



Elkarte honek dituen helburu nagusiak ondorengoak dira:

Herriari bizia eman. Egiten diren ekitaldien bidez, Larrabetzu herri bizia izan dadin lortu nahi dugu eta horretarako ekintza ezberdinak antolatzeari derrigorrezkoa deritzogu.

Aisialdi alternatiboa eskaini. Hori Baiak eskaintzen duen aisialdia euskal kulturaren oinarritua da, betiere euskara erabiltzetik hasita. Baina euskal kulturaz gain beste beste balore batzuetan hezteko ere badu helburu: feminismoa, elkartasuna, aniztasuna...

Herriko gazteen topaleku bilakatu. Hori Baien era naturalean sortzen dira gazteen arteko harremanak. Gazteak batzeko une ezberdinak daude: asanbladetan, ekintzetan eta baita denbora libreko tarreetan ere, Hori Baien ateak beti dagozalako zabalik edonorentzat.

Gazteei lekua eskaini. Herrian ez dago gazteak batzeko beste lokalik eta Hori Baiak hori eskaintzen du, edozein momentutan bertan denbora pasa egon edo hainbat ekintza aurrera eramateko aukera emanez.



Gazteak pertsonalki zein kolektiboki hazi/hezi. Hori Bai lokala bera baita asanblada ere, gazteak hazi eta hezteko lekua da. Bertan gazteek beraien kezka, ardurak eta nahiak konpartitzen dituzte, batak bestearengandik ikasiz.

Lokalaren erabilera bizia bermatu. Ez da lokala bere horretan eduki nahi eta horretarako bertan ekitaldiak egiten dira. Lokala Hori Baiak erabiltzetik aparte, herriko beste elkarte zein norbanakoek ere erabiltzen dute euren ekitaldiak antolatzeko.



Helburuok betetzeko asmotan Hori Baiak egiten duen eskaintza kulturala oso zabala da. Mota askotako ekintzak antolatzen ditu: bai herritarrek jasotzekoak, kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak, bertso-saioak.. eta baita herritarrek parte hartzekoak ere: txapelketak, tailerrak, jolasak, mendi irteerak...

Ekintza hauek urte osoan zehar burutzen dira, asteburu zein astegunetan, baina batez ere bariku iluntze eta domeka arraltsadeetan. Badira ekintza batzuk betikoak direnak, hau da, urtero errepikatzen direnak: San Juan bezperako antzerkia, Auzoz Auzo ibilaldia, San Migelak eta Hori Baiantzat urteko egunik berezienak diren San Inazio eta Gazte Eguna. Horiez gain, gabon inguruan biltzen diren Gabo-



netako kultur ekitaldiek ere garrantzia handia dute: Olentzeroren bila, Olentzero, 25eko bertso-saioa, 31ko kotiloia...

Hori Baiek antolatzen dituen ekintza gehienak Hori Baien bertan burutzen badira ere, herrian zehar eta herritik kanpo ere hainbat ekitaldi antolatzen ditugu.

Hori Baiek adin guztietako herritarrentzako ekintzak antolatzen ditu. Gazteak ez eze, beste adin batzuetako jendea ere batzen da bertan: umeak, nerabeak eta helduak, belaunaldi ezberdinetako topalekua delarik.

Elkartarekin harremanetan jartzeko **horibaigaztetxea@gmail.com** helbide elektronikora idatzi daiteke edo zuzenean barikuetan burutzen den asanbladara jo eta bertan parte hartu. Eta **www.horibai.org** webgunean elkartearen informazio gehiago aurki daiteke: ekintzen kartelak, argazkiak, bideoak, historia...





Intxurreta

jai batzordea



Intxurreta jai-batzordea 2003 sortu genuen hainbat herritarrek. Orduko udalak herriko jaiak enpresa pribatu agindu zizkiola-eta, herriko jaiak herritarrok antolatu behar ditugula sinestuta, Intxurretan sortu genuen.

Intxurretan jai-batzordea kultur elkarte legez erregistratuta bada-go ere, urtero berritzen da Intxurreta jai-batzordea deialdi publikoei erantzuten diegun herritarrek osatzen baitugu. Jai-batzordean adin guztietako herritarrek parte hartu lezaketelarik, gaur gaurkoz 19 eta 45 urte artekoak gara gehienbat. Guztiok ere, borondate hutsez egi-ten dugu lan, trukean ezelango dirurik jaso barik.



Abuztuaren 13tik 16ra ospatzen ditugun Andra Marietako, abuztuaren 24ko San Bartolome eguneko zein Abuztuaren 31tik irailaren 1era burutzen ditugun Emeterietako programa dagokion urteko jai-batzordea osatzen dugun larrabetzuarrok erabaki eta gauzatzen dugu.

Jaietan zein ekitaldi proposatu erabakitzeko orduan helburu nagusiok hartzen ditugu aintzat:

- Ekitaldietan larrabetzuarron parte hartze aktiboa bultzatzea.
- Euskal kulturaren ezagutza, lantzea eta transmisioa.
- Larrabetzuarron arteko harremanak estutzea.



Guk antolatutako jaietan musika, dantza eta antzerkia dira nagusi eta ume, gazte zein helduentzako proposamenak egiten ditugu, hasi abuztuaren 16ko Umeen eguneko ekitaldietatik eta Gure Etxeagaz batera antolatzen dugun dantzaldiraino. Gure kulturaren adierazpide horietan larrabetzuarrok era aktiboan zein pasiboan hartzen dugu parte, abuztuaren 13ko Kantuz kantun edo Emeterietako folk kontzertuan.

Jaien berri honako e-lbidean zabaltzen dugu:

www.larrabetzu.org/jaiak

Intxurreta jai-batzordeari edozein proposamen helarazoteko:

akermari@gmail.com



Gure Etxea

jubilaten elkarte



Gure Etxea Jubilatuen elkarte 1984an sortu genuen Larrabetzuko jubilatuei elkartzeko eta denbora librean ekintzak elkarregaz burutu-teko. Gaur egun, 256 larrabetzuarrek osatzen dugu.

Gure egoitzan, batez ere arrastietan, kartetan egiteko batzen gara egunero eta horrez gain, urtean zehar makina bat ekintza antolatzen ditugu.

Urtarrilero dantzaldia eta antzerkia izaten ditugu.

Martxoaren 8a andrazkoen artean bazkalduta ospatuten dugu.

Maiatzaren 1eko zubian egun bat baizen gehiagoko irteerak antolaten ditugu.



San Antonioetan Urkiolara, Karmenatan Zornotzara, irailean kostaldera, urriko azken astelehenean Gernikara eta udagoieneko beste egun batean Lodosara ere joaten gara.

Sano da garrantzitsua guretzat uztailaren 31ko San Inazioko bazkaria, bertan elkartzen baikara bazkideetako gehienak.

Urteak ere badira, Intxurreta jai-batzordekoek gonbidatuta, Andra Mari jaietan parte hartzen dugula. Era berean, Korrika datorrenean, gure ekarpena egin ohi diogu.

Urrian hasi eta abendura bitartean, karta txapelketa jokatzen dugu.

Azkenik, abenduan, bazkideen urteroko bazkarian, 90 urte bete dituzten larrabetzuarrak omentzen ditugu.





Itallen

bertso eskola



Itallen bertso-eskola 1987an sortu genuen bertsozaletasuna jorratu eta euskara lantzeko asmoz. Helburu horri eusten diogu oraindik ere. 1987tik gaur egunera gora behera asko bizi izan ditugu, desagertu zein agertu egin gara baina duela urte batzuetatik, etenbarik gabiz bertsolaritzan.

Astero astero batzen gara Hori Bai gaztetxean gazteen taldean 5 kide eta nagusienean 8. Ordubete ordubete eta erdiko saioetan, bertsoan bat-batean zelan egin ikasten dugu batez ere eta horretarako doinuak ikasi edota hizkuntza lantzeko ariketa zein jokoak ditugu langai.

Bertsotan ikasi, hizkuntza aberastu eta kantuan gozatu, horra gure jardunaren hiru ezaugarri nagusi.



Urteroko ekintzak

Udaberriro bertso afaria antolatzen dugu, tokatzen denean Bizkaiko bertsolari txapelketako kanporaketa saioagaz batera.



Itallenen kideontzako ikastaro berezia izaten dugu, geure burua trebatzeko beti ere.

Ekainean, ikasturte amaierako jaialdian, larrabetzuarrei ikasturtean ikasi duguna erakusteko saioa prestatzen dugu, gazteen eta nagusien taldeen artean.

Emeteri egunean, Eleizalden, saioa librea antolatzen dugu Intxurretagaz batera.

Urteetan itzelezko erantzuna izan dute beste bi saio aipatu behar ditugu derrigorrez:

Urriko Bertoko Produktuen Azoka eguneko bertso poteoa.

Abenduaren 25eko bertso-saioa

Itallen bertso-eskolara urteko edozein sasotian etorri daiteke ezelan-go matrikularik ordaindu behar barik.

Kontaktua: **itallen@gmail.com**



Hutsuneak zelan bete

Larrabetzun kultura eskaintza oparoa eta era askotakoa bada ere, hutsuneak ditugula konturatu gara. Zein hutsune ditugun konturatzeko bi neurgailu edo irizpide hartu ditugu aintzat:

Jaso: Larrabetzuarrok ikusle edo hartzaile pasibo legez, zer kultura eskaintza jasotzen dugun. Zein antzerki edo dantza ikusten dugun, zein musika entzun, zein literatura irakurri...

Sortu: Larrabetzuarrok guk geuk, parte hartzaile aktibo legez, zer kultura sortzen dugun. Antzerkirik egiten dugun, musikarik kantatu edo jotzen dugun, literatura idatzi edo literaturaz berba egiten dugun, margotzen dugun, argazkiak, bideoak eta antzekoak era artistikoan jorratzen ditugun.

Gure ustez, kultura hausnartzeko, ezinbestekoa da bi ekintza horiek aintzat hartzea. Kultura lehenengo jaso egiten da, gero, gura izanez gero, norbera bihurtzen da sortzaile. Musika, lehenengo entzun egiten dugu, gero kantatu.

Kulturak iraun dezan bi ekintza horiek eman behar dira, jaso eta sortu, sortu eta jaso, ondorioz, transmititu, ondorioz, iraun.

Kulturbilgunea osatzen dugunok, ondorengo hutsuneak zerrendatu ditugu. Ziurrenik, zuk beste batzuk nabarmenduko zenituzke.

Zeintzuk?



Antzerkia

Jaso: Eskolan, Hori Baien, jaietan kalean, Angulerin, Gure Etxean.

Sortu: Eskolan

Antolatu: Txinpasmendik, Hori Baiek, Intxurretak, udalak, Gure Etxeak

Hutsunea: Eskolatik kanpo ez dago antzerkia lantzeko bestelako aukerarik.

Musika

Jaso: Hori Baien, jaietan kalean, eskolan, Gure Etxean, Eleizan.

Sortu: Eskolan, Hori Baien, Musika Eskolan, Izar Argian, Gaztelumendi Abesbatzan, Musika Eskolan.

Antolatu: Hori Baiek, Intxurretak, Txinpasmendik, udalak, Gure Etxeak, Izar Argiak, Musika Eskolak.

Hutsunea: Ez dugu jazza, bluesa eta bestelako musikak nork irakatsi eta non sortu.

Literatura

Jaso: Angulerin (Azalerako ipuinak, Irakurketa tailerra), Literaturaz berbetanen.

Sortu: Ez dugu sormena lantzeko aukerarik

Antolatu: Udalak

Hutsunea: Ez dugu 11-18 urte bitarteko larrabetzuarrentzako eskaintzarik.

Ez dugu sormena lantzeko aukerarik

Dantza

Jaso: Eskolan, jaietan, frontoian

Sortu: Eskolan, frontoian.

Antolatu: Txinpasmendi, udala

Hutsunea: Euskal dantzetan gizonaen gabezia nabarmena da.



Arte-plastikoak

Jaso eta sortu: Eskolan

Antolatu: Txinpasmendik eta udalak

Hutsunea: Eskola amaitutakoan ez dago ezelango eskaintzarik, ez jasotzeko ez sortzeko.

Arte-plastikoak guztiz ahaztuta ditugu.

Ikusentzunezkoak

Jaso: Angulerin, Hori Baien

Sortu: Ez dugu eskaintzarik.

Antolatu: Hori Baiek, udalak

Hutsunea: Sano gutxi jasotzen dugu eta ez dugu batere sortzen.

Bertsolaritza

Jaso: Eskolan, Itallen bertso eskolan, Hori Baien, jaietan kalean.

Sortu: Eskolan, Itallen bertso eskolan.

Antolatu: Eskolak, Itallen bertso-eskolak, Intxurretak.

Hutsunea:



Eta orain zer?

Guk honek hutsuneok igarri ditugu. Eta zuk, zein beste hutsune ditugula uste duzu? Zelan bete ditzakegu?

Baduzu proposamenik?

Prest zagoz ardura hartzeko? Prest zagoz Kulturbilgunera etorteko?


Larrabetzuar legez, zelango kultura jaso gura zenuke?

Eta zein sorkuntza kulturaletan hartuko zenuke parte gustura?

Kulturbilgunekoak hileko lehenengo martitzenetan biltzen gara, 18:30etan, Angulerin.

Edozein zalantza, kritika, ekarpen, proposamen luzatzeko:

kulturbilgunea@bizkaia.org




kulturbilgunea



Ekintzen balorazioa

Ekintzak nori zuzenduak?

- Helduak / Nagusiak /Ikastaroak
- Herri osoa
- Eskola umeak
- Nagusiak
- Helduak




1. Helduak / Herri osoa / Eskola umeak.
2. Helduentzako / Nagusientzako ikastaroak.
3. Nagusientzako ekintzak

Kontuan hartzeko:

- Eskolako umeak esaten doguzenean 0-10 urte bitarteko umeentzako ekintzez berba egiten dogu.
- Beraz, 10-14 adin tarte horretako gazteentzat oso gitxi egiten da Larrabetzun. Ikusten dan legez herri osorako ekintza horien barruan sartu geinkez baina beraientzat espezifikoak diren ekintzak oso gitxi egiten dira.
- Nagusientzako ekintzen kasuan Gure Etxeak irteera eta ekintza ezberdinak burutzen dauz baina ez dagoz ekintzen analisisian kontenplatura. Interesgarria izango zan hauek ikustea.




Nork antolatu?



1. Udala / 2. Txinpasmendi / 3. Hori Bai / 4.Gure Etxea /
5. Mankomunitatea / 6.Jai Batzordea /
7. Gurpide - Gaztelumendi -Arrekikili / 8. Musika eskola


Zein eremu jorratu da?



1. Aisialdia / 2. Jaiak / 3. Irakurketa-Parekidetasuna /
4. Nekazaritza / 5. Euskara / 6.Musika /




Espazio irekian edo itxian?



Ekintzen erdia baino gehiago espazio itxian egiten dira.


Parte hartze aktiboa edo pasiboa



Antzekoa da parte hartze aktiboa eta pasiboa.



Zein hizkuntzatan egin da ekintza?



Ekintzen hiru laurdena euskaraz burutzen dira.